

Bizkaiko



Dantzarien Biltzarra

LEKEITIO 2016 MAIATZAK 15



BIZKAIKO
DANTZARIEN
BILTZARRA



BIZKAIKO DANTZARI EGUNA





MAIATZAK 15 Igandea

11:00 Taldeen Kalejira.

11:30 INDEPENDENTZIA PLAZAN Dantza Talde Ekitaldia
DANTZARI DANTZA

Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata Joko Txikiak, Banangoa, Binangoa, Ezpata Joko Nagusia, Launangoa, Makil Jokoa, Txontxongiloa.

GIPUZKOAKO DANTZAK

Agurra, Makil Txiki eta Zinta dantza

DANTZARI ERTAINAK - TXIKIAK

Txulalai, Zazpi Jauziak, Zapatain dantza eta Baztango esku dantza.

IBARZABAL - ARKU DANTZA

ELTZIEGOKO DANTZAK

Correcalles, La Danza, Cuatro Calles, Arbol, Jota

GORULARIAK

Domingiloa eta Arku dantza

DANTZARI ERTAINAK - TXIKIAK

Marianak, Grago eta Larraburu

KAIXARRANKA

LARRAIN DANTZA

11:00 ESKOLAPEN Folklore Azoka

16:30 ERROMERIA LUHARTZ taldearekin Independentzia plazan



Ongi etorriak izan zaitezte aurten gure herrian ospatuko den Dantzari Egunera. Lekeitiora urreratu zareten pertsona guztioi, pozik eta esku zabalik hartzen zaituztegu. Herri osoa harro eta ilusioz beteta dago egun hau dela eta.

Euskal dantzak, euskal kultura eta [folklorearen](#) funtsetako bat da. Gure kulturaren sustrai, gure nortasunaren isla. Folkloreak gizarte bat definitzen du. Euskal dantzak, belaunaldiz belaunaldi urte eta mendeetan zehar mimoz eta errespetu osoz gorde direnak, horren lekuko dira.

Dantzen zaintzaile izan diren talde eta pertsona ezberdinei esker heldu zaigu gaur egunera euskal dantza osasuntsu eta indartsu.

Gure herrian Etorkizuna Dantza taldea egiten ari da lan hau azken 40 urteetan.

Lekeitio herri dantzaria da. Ehundaka urte dauzkaten dantzak mantendu egin dira mendeetan zehar gaur egunera arte, esaterako Kaixarranka eta Emakume Aurrekua. Urtez urte biak dantzatzen dira San Pedro egunean ospe handiz. Euskal folklorearen altxor apartak eta ezagunak dira.

Bukatzeko, eskerrak eman, 2016ko Bizkaiko Dantzari Eguna antolatzen ibili zareten pertsona eta erakunde guztiei eta nola ez, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrari, gure Lekeitio aukeratzearen egun berezi hau ospatzeko.

Guztioi, eskerrik asko ta ongi etorriak Lekeitiora.

Koldobika Goitia Markuerkiaga,

ERAKUSKETA

LEKEITIOKO Barandiaran Aretoa



Apirilak 29tik - Maiatzak 15arte

Lanegunetan: 18:00 – 20:00

Asteburutan: 12:00 – 14:00 eta 19:00 – 21:00

Bizkaiko Dantzarien Biltzarra Federazioak, Bizkaiko dantza talde gehienak elkartzen ditu.

Biltzarraren helburu nagusienetarikoa da, izan ere, Bizkaiko dantza tradizionalen inguruko elementu guztiak gordetzea. Hori dela eta, gure lurraldeko dantzei buruzko jantzi-bilduma bat prestatu dugu, gai horretan aditu diren pertsonen aholkularitzaz.

Erakusketa hau, Bizkaiko Dantzari Eguna, Maiatzak 15, Lekeition izango deleko, bertara ekarri dugu.

Erakusketa hau bisitarien gustokoa eta gure janzkera tradizionala ezagutzera emateko baliagarria izango al da.

ERROAK

dantza tradizionalako ikuskizuna. Jatorrizko dantza taldeekin

Maiatzak 7, arratsaldeko 21:30

Santi Brouard Frontoian

LEKEITIOKO ESTUDIANTINA

(20:00 Lekeitioko kaleetan)

ONDARRUko KRESALA dantza taldea: Saliña – saliña

MENDEXAko dantza taldea: Mahai gainekoak

MARKINAko ZERUTXU dantza taldea: Ezpata Dantza

LEKEITIOko ETORKIZUNA dantza taldea:

Kaixarranka eta Andrazkoen Aurrezkua

Bizkaian dantza tradizionalari balioa emateko beharraren ondorioz sortu da. Ildo horri jarraiki, urte askotan eta gaur arte gogo handiz eta aurki aseak jardun duten pertsona eta taldeak identifikatu dituzten tradizioen jatorria eta erroak aditzera eman nahi dira. Ordezkatzen dituzten udalerrri eta erkidego desberdinen nortasun ezaugarriak eta elementuak adierazi nahi dira. Tradizio berria eta berritua, herri bakoitzaren gorabeheretara moldatua, etengabe eboluzionatzen ari dena, etengabe eraldatzen, baina herri baten nortasun-ezaugarria galdu gabe.

Dantza tradizionalan arituz talde hauen guztien ahaleginak eta lanak pozten gaitu eta egiten dugunaz gozatzeko aukera eskaintzen digu.

Horrengatik guztiarengatik, ERROAK ikuskizun honekin, bai dantza tradizionalari, kasu honetan LEA-ARTIBAICOARI, bai bizirik mantentzen duten pertsonen protagonismoa eman nahi diegu.

Bizkaiko



Dantzarien Biltzarra

Luis Briñas 31, 48013 Bilbao Tf/Fax: 94 441.85.63 – 649.647.483 www.dantzanet.net


- dantzanet@gmail.com



Bizkaiko
Dantzarien
Biltzarra



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



**lekeitioko
udala**



bbk

